prentsa oharra
nota de prensa

Euskal Herria 2020ko otsailak 14

## EAEko publikoko irakasleen aurreakordioaren ondorioz sortutako jarraipen batzordea agortu da

STEILAS sindikatuak aurreakordioaren ondorioz sortutako jarraipen batzordea agortutzat ematen du. 2018ko maiatzean sinatutako aurreakordioak zirrikitu bat ireki zuen 2012tik iraungita dagoen lan akordioa berritzeko. Baina sindikatuak gai ezberdinen inguruko proposamen ugari mahai gainean jarri dituen arren, gobernuak ogi birrinak baino ez ditu eskaini, negoziazioa etengabe oztopatuz eta moteldu. Badirudi, Eusko Jaurlaritzak Gernikako Estatututzat hartzen duela aurreakordioa, adostutako puntuak hemendik 40 urtera transferitzeko eta aplikatzeko.

STEILAS sindikatuak oinarrizkoak eta gauzagarriak diren proposamen zehatzak egin ditu lan hitzarmen berri bat adosteko bidean: erretiro baldintzak, ratioak, eros ahalmena berreskuratzea, plantillaren gaztetze plana eta ikastetxeetarako pertsonal baliabideak. Lan hitzarmen berrian ezinbestean adostu beharrekoak diren gaiak dira horiek. EAJ-PNVek beste aldera begiratzea erabaki du, eta ondorioz, diru publikoz hornitutako hezkuntza sareen artean, langile publikoak gara lan hitzarmena eguneratu gabe dugun bakarrak.

Bi legealdi eman ditu EAJk hezkuntza Saila gidatzen, eta gauzatu dituen akordio bakarrak mobilizazio indartsuen ondorioz izan dira. Gure eskubideen alde borrokan jarraituko dugu.

**LAN HITZARMEN BERRIA ORAIN!** **ADAR JOTZE GEHIAGORIK EZ!**

.............................................................................

## STEILAS da por finalizada la comisión de seguimiento creada a partir del preacuerdo del colectivo del profesorado de la CAPV

El sindicato STEILAS da por finalizada la comisión de seguimiento creada a partir del preacuerdo para un nuevo convenio laboral. Con el preacuerdo firmado en mayo de 2018, se consiguió iniciar un camino para renovar el convenio caducado en 2012. A pesar de que el sindicato haya puesto sobre la mesa varias propuestas, el gobierno solo ha ofrecido migajas obstaculizando y ralentizando la negociación. Parece que el Gobierno Vasco se toma el acuerdo como si fuera el Estatuto de Gernika, transfiriendo y aplicando los puntos acordados de aquí a 40 años.

El sindicato STEILAS ha realizado propuestas concretas, básicas y viables encaminadas hacia un nuevo convenio laboral, tales como: condiciones de jubilación, ratios, recuperar poder adquisitivo, rejuvenecimiento de plantilla y recursos personales para los centros educativos. Consideramos que esos son temas imprescindibles para acordar un nuevo convenio. EAJ-PNV ha decidido mirar para otro lado y como resultado somos el único colectivo sin un acuerdo laboral actualizado de la red educativa subencionada con dinero público.

Tras dos legistaturas en el Departamento de Educación, los únicos acuerdos a los que se han llegado con EAJ-PNV han sido por medio de movilizaciones. Seguiremos luchando por nuestros derechos.

**NUEVO CONVENIO LABORAL YA!** **NO MÁS TOMADURAS DE PELO!**